

IDOIA GARZES

HARI SINGLE BAT

XXXVII. LIZARDI SARIA. 2018

<<LEHEN SARIA>>



erein **AUSKA** 

HARI SINGLE BAT

Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.cedro.org).

Liburu honek Eusko Jauriaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza jaso du.

1. argitalpena: 2019ko martxoan

Azala eta liburuaren diseinua:

Iturri

Maketazioa:

Erein

Azala eta barruko irudiak:

Leire Urbeltz

© Idoia Garzes

© EREIN. Donostia 2019

ISBN: 978-84-9109-456-2

L. G.: SS-397/2019

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300

erein@erein.eus

www.erein.eus    

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008 F 943 130 822

e-mail: itxaropena@itxaropena.net

www.itxaropena.net

IDOIA GARZES

HARI SINGLE BAT

Marrazkiak: Leire Urbeltz

XXXVII. LIZARDI SARIA. 2018

<<LEHEN SARIA>>

erein **AUSKA** 



© Nerea Navarro

idoiagarzes

idazlea

Idoia Garzes (Lasarte-Oria, 1973) Orain apal-betetzailer nabil hipermerkatu batean. Etxea garbitzeko produktuekin betetzen ditut apalak, liburuekin bete nahiko nituzke, eta ametsez beteta dauzkat. I-rekin hasten diren gauzak gustuko ditut: irakurtzea, idaztea, ibiltzea, ittea lo...



© Gorka Beunza

leireurbeltz

marrazkilaria

Leire Urbeltz Euskal herriko Unibertsitatean Arte Ederak eta Ikerketa eta Sormena Artean Masterra ikasi ziotuen.

Bartzelonako Eina eskolan Ilustrazio sortzailea ikasi zuen eta Madrilgo Mataderoan Album Ilustratuak sortzeko masterra ere.


Seulgo Sema Nanji egoitzan, Juarez hiriko “El Paso del Norte” kultur zentroan, Pekineko Manga Art estudioan eta Bilbaoarten artista egoilarra izan da.

Egun sormen lana bitartekaritza eta hezkuntza lanekin tartekatzen du Huarteko Arte Garaikideko Zentroan eta Nafarroako Unibertsitate Publikoan.

*Amona Rufinari,
etenik ez da.*

Salto batean atera zen korrika, autoa baserriko atarian gelditu aurretik ia. Eta ganbararako eskailera-mailak igo zituen binaka, eta baita hirunaka ere, estropezurik egin gabe. Arnasestuka heldu zen teilatupeko gela handira, gurasoen esanak atzean utzita: “Arrako, hartu maleta eta ipini txukun-txukun arropak armairuan!” eta “neska honek ez al du sekula esandakoa egin behar, ala?”.

Baserriko mandioa zen Arrakoren txokorik maiteena. “Aditzen al duzu? Goxoa da, ezta?”. Irribarre erdia ahoan, buruarekin baiezko keinua egiten ari zela konturatu zen Arrako harrituta. Eta lotsatu zen, bere burua inori erantzuten ari zitzaiola harrapatuta.





Hango usain berezia maite zuen, bai, Arrakok. Aspaldi, baina, amona zahar-etxera erraman zutenetik, ez zen sala zabal hartan belar ondurik, kamamilarik, sagarrik edo artorik gordetzen.

Horregatik, arnagora indarrez eginda bete zituen Arrakok airez birikak, usain haren oroitzapena atxikitzeko, baina batez ere eztarrian zuen korapiloari eusteko eta begietan ñir-ñir agerian zituen negar-malkoei ateratzen ez uzteko.

Birikak lehertu beharrean zituela, itotzear airea falta zitzaiola, zabaldu zuen ahoa arnasteko, erdi-zorabiatua. Jadanik ez zen usain maite haren arrastorik ganbaran.

Begiak ireki zituenean amonaren kutxa zaharra ikusi zuen txoko batean. Eta harrituta hurreratu zitzaion, hura ez baitzuen bere lekua. Etxeko maindiak eta arropa zuria gordetzen zituen altzari zahar hark amonaren logelan behar zukeen.

Kosta zitzaion, bai, kutxa zabaltzea. Nekez ireki zuen, barru aldetik indar ezkutu bat balego bezala hura galarazi nahian. Eta lortu zuenean, ia zorabiatu zuen atzera eragiteko moduko zoko-usainak, ez baitzuen halakorik espero, maindire artean amonak gordetzen zituen izpiliku-azaoen usain goxoa gogoan.

Kutxa egurastu zelakoan burua gerturatu, eta hondo ilunean ezezagunak zitzaizkion hainbat gauza ikusi zituen Arrakok. Orratzak ezagutu zituen, korratz eta galtzorratzak, eta haria bilduz egindako bolak. Baina kutxan zeuden beste gauza haiek zer ziren ez zekien. Garai bateko lanabesak-edo izango zirela pentsatu zuen, baina...

Jakina, aitzurra, sega, igitaia eta sardea zer ziren bazekien. Eta goldea eta alperra, eta kaikua eta bahea, baina... gauza haiek? “Amonaren trepetak” entzun eta jauzi eginda jiratu zuen burua. Baina han bera beste inor ez zegoen. Eta bihotza, taupa-taupa arrapaladan, ahotik irten beharrean sentitu zuen; bere barruan, “amonaren trepetak, amonaren trepetak” aditzen zuen bitartean.

Durduzatuta artean, hain egin baitzitzaion sinesgarri hitz ezagun haiek entzun izana, trepetak haietako bat hartu zuen. Dardara eginarazi zion zirrara batek zeharkatu zion gorputz osoa.

Esku artean, zurezko makila antzeko bat baino ez zuen. Soila. Harrituta begiratu zion, zein misterio izan zezakeen eta zertarako erabil ote zitekeen ezin asmatuta. Ziri biribila zen, erdialdetik puntetara

mehetuz eta zorroztuz zihoana, puntetako batean kako antzeko bat zuena.

Poltsikotik mugikorra atera zuen Arrakok eta objektu ezezagunaren aurrean paratuta aplikazio bat sakatu zuen.

“[Ardatz] izena, iruteko erabiltzen den zurezko tresna, makila gisakoa, erdialdetik puntetara zorroztuz doana. Adibidea: *ardatzaz irun*”, bota zion sega-potoak.

–Irun? –galdetu zion Arrakok mugikorrari–. Eta ez esan Gipuzkoako udalerrria denik, hori nik ere badakit-eta!

“[Irun, iruten du] aditza, ehuntzeko gaia hari bihurtu. Adibideak: *Lihoa edo artilea irun. Kirru goruan biribildua iruten, moltsotik hari mehea egiteko*”, esan zion berriro sega-potoak, Arrako amorrarazten zuen ahots argi-usteko askojakin harekin.

–Kirru, goru, moltso? Ez dut zipitzik ere ulerzen. Bideoa! –agindu zion Arrakok telefonoari.

Eta pantailak erakutsi zion bideoan esku bi ikusi zituen Arrakok, azukre-kotoizko hodei goxoa zirudien zerbaiti heltzen bata, eta bestea hodeitik zatiak hartzen eta hatz artean mehetzen, ardatzaren kakoan ipintzeko gero.

Jira eta bira hasi zen ardatza orduan, eta hodei-zatia nola bihurtzen zen hari ikusi zuen Arrakok harrituta. Nola laino-matazak mehetzera eta mehetzera egiten zuen, izpi luze bihurtzeko.

Magia iruditu zitzaion Arrakori sega-potoaren pantailan ikusitakoa, eta berriro sakatu zuen *play* botoia, hari mehe batek baino eusten ez zion ardatzaren dantza hipnotikoa berriro ikusteko.

Z iztu bizian jaitsi zituen eskailera-mailak Arrakok, eta zurrunbilo baten moduan sartu zen sukaldean, kutxan topatutako ardatza eskuan astintzen zuen bitartean.

–Ama, aita, begira zer topatu dudan ganbaran!

–Amaren ardatza! –izan zen Arrakoren amaren oihu txikia.

Esku artean zuen platera irristatu zitzaion Arrakoren amari. Eta hamaika zatitan apurtu zen lurra jota. Harrituta begiratu zioten aita-alabek, eta ama pittin bat zurbildu zela iruditu zitzaion Arrakori.

Isilik afaldu zuten, sardexkek platerak ukitzean egindako hotsa baino aditzen ez zela. Afarirako ordua berandutu egin zitzaien. Baserrira iristeko espero

baino denbora gehiago behar izan zuten, baita ekarritako arropak eta gauzak bere lekuan ipintzeko eta etxe zaharra egurasteko ere. Urteak zeramatzan itxita, eta ekonomikak martxa hartzerako ilun zen kanpoan.

–Ardatz hori belaunez belaun igaro da gure familiako amen eskuetatik alabenetara –esan zuen Arrakoren amak, hiruren arteko isiltasuna urratuta.

–Eta zergatik ez zenuen zuk gorde?

Alabari begira gelditu zen, haren begiradari eutsiz, eta erantzuteko keinua egin zuela iruditu zitzaion Arrakori, baina damututa-edo begiak apaldu zituen amak.

–Amonak ez zizun zuri eman? Zergatik? –Alaba ez zegoen etsitzekotan.

Isiltasuna gailendu zen berriro. Amaren isiltasuna, baina, aita-alabak zain gelditu baitziren hark zer erantzungo.

–Amaitu afaria, Arrako –izan zen amaren erantzuna.

–Baina...

–Egun luzea izan da gaurkoa eta nekatuta behar duzu, guk bezala –jarraitu zion aitak amaren ildoari–. Bihar hitz egingo dugu.

–Baina, aita...

–Bihar hitz egingo dugu, Arrako –amaitutzat eman zuen amak eztabaida.